



HAL
open science

Oihenarten atsotitzak eta gaurko fraseologia

Charles Xarles, C., X. Videgain

► **To cite this version:**

Charles Xarles, C., X. Videgain. Oihenarten atsotitzak eta gaurko fraseologia. Lapurdum, 1994, Oihenarten laugarren mendeurrena, 8, pp.181-188. artxibo-01217092

HAL Id: artxibo-01217092

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-01217092v1>

Submitted on 19 Oct 2015

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

OIHENARTEN ATSOHITZAK ETA GAURKO FRASEOLOGIA OZTIBARREN

Xarles VIDEGAIN

U.R.A.

1055 C.N.R.S., Bordeaux III

Oihenartek bildu zituen atsotitzen bilduma (1657) bietan da garrantzi handikoa: behin, euskal paremiologiaren historian oinarritzko obra delakotz, Vinsonek jadanik erran bezala; eta bestalde, bere olerkien hontzeko tresneria atsotitzetan esprabatu zuelakotz, J.B Orpustan erakusten ari den bezala. Hain zuzen hizkuntzaren aldetik, atsotitzetan entseatu formak arrabaliatzen ditu bere olerkietan, eta nozioen aldetik ere, atsotitzetan tinko tinko bildu egoera edo gogoeta zombait garatu ditu nasaikiago olerkietan.

Garrantzitasun bikun hori ene lanak ez du ikertuko baizik eta azken bulta honetan dudan arrangura zombait azalduko. Euskal Herriko Hizkuntz-Atlasa bururatu asmoz, gaurko ahozko euskarazko ekeiaren biltzearekin, lexikoaren jasotzean fraseologia ahalaz ez dela bazter utzi behar pensatzen baitut, gertatzen zait ardura jende xeheen ahotik esaerak entzutea. Oihenarten atsotitzen arana gaur entzun daitekeenetz ikertu nahi izan dut Oztibarreko lurretan bildu fraseologiatik abiaturik.

Oztibarre zergatik? Ez eta Oihenartek Oztibarren zituzkeen lotura eta ezagunegatik: halere badakigu Zibitzen sortu bere emazteari esker «juge-jeuant» izendatua izan zela Oztibarren bainan azaleko datu horrek Oztibarren hautatzera ez nau bultzatu. Arrazoina xumeagoa da: inkesta andana bat Oztibartarrekin egitea gertatu zait eta han bildu dudan fraseologiaren nolazbait Oihenarten altxorraren item zombaitekin konparatzea interesgarri iduri zait. Ba ote da Oihenarten garaiko atsotitzik gaurregun ere bizirik denik? Bizirik irautekotan, ez ote dute aldaketarik jasan? Hori da oso gaingiroki azaldu nahi nukeena. Luzeegi bailitake Oihenarten korpus osoa aztertzea adibide zombait baizik ez da agertuko.

Hartzte du menturaz atsotitzen ezaugarrien emaitzak hatsarrean, Oihenartek berak eman azalpena laburbilduz. Bere 1657ko liburuaren aintzin solasean,

atsotitzen ezaugarriak aski ongi azpimarratu zituen: «egiazko atsohitzen markak» zauzkan labur izaitea eta manera atsegin ukaitea. Ontsalaz, mamirik ez duen atsotitzik ez da; atsotitza jakitate baten adierazten duen banakoa izan behar da. Gehiago dena eta Oihenarten ustez, atsotitza ez da baitezpada jende arrunten hitz-ukaldi hutsa. Jende kultoen aberastasuna dela adierazten digu: egin duen bilketan, Aristote, Théophraste, Erasme, Scaliger eta Hernando Nuñez dauzka aintzindari, eta ez herri-literatura. Atsotitzak antzineko filosofia baten ondarkinak direla dio. Ez ahantz ere bere bilketa baholatu zuela Oihenartek: arruntak zitzaizkion atsotitzek ez zuten liburuan sartzerik izan, arruntasuna zeren arabera neurtzen zuen ez zuelarik zehazten.

Ikusiz zoin nasaia den atsotitzez dagoen literatura, alfer aire duke definizio zehatzaren emaitzak. Horrela bil daiteke halere atsotitzaren funtsa: atsohitza da ahalaz modu labur eta atsegin batez eman jakitatea adierazten duen unitate kodifikatua.

Beraz mamia behar du bainan zoin nahi axal ez dezake har atsohitz on batek. Mamiaz, bi ezaugarri badauzka: lehenik, balio arau-emailea badu atsohitzak, izakera gnomikoa edo epaikaria; eta bigarrenekorik, balio orokorzalea badu, askotan metaforaren bidez. Diskurtsuaren aldetik, bere independentzia gramatikala badu, lokuzioak ez bezala, eta kasik zitazio edo aipamen gisa sartzen da diskurtsoan. Morfologiaren aldetik dituen ezaugarriak ez ditut hemen aipatuko. Atsotitz batek ezaugarri hauk guziak ez badauzka ere, on izatekotan, gehienak bederen eukitea baitezbadako baldintzak zaizkio bizirik irauteko.

Gehienetan unibersala izanik atsotitzak adierazten duen mezua bere gizarte berezian errotua delako marka erakutsi nahi izan ohi du atsotitz-biltzaleak; batzutan gizarte horrek duen arazo bati bere aburu propioa emaiten dio atsotitzak, gehienetan axaleko joko batez, partikulazki izen propioak baliatuz, nun nahi ezaguna den kontzeptu orokorra hizkuntzaren eremuko leku berezi zombaiten izenak sakatuz, izan daitezten Arradoi, Orhi, Baigorri, Donostia edo Biriatu, Oihenarten kasuan bezala.

Dialektologiaren ikusmoldetik, eta beraz aldaketari bere garrantzia emanez, fraseologia-mailan ere gertatzen dira aldaketa sinkronikoak eta diakronikoak. Adibide bat Oihenarti harturik, horra zer dion 686. atsotitzak: *Berzeren escuz suguea berrotic athera nahi du*. Zer erran nahi zuen horrek Oihenartentzat eta orduko Ekialdeko Euskaldunentzat? Mezu garbia dauka errannahi analitikoak, metafora baten bitartez: «lan zaila egin-araztea». Baina atsotitzetik idokitzen badugu elementu soil bat hala nola *sugea berrotik ateratzea*, ez ote du erran nahi ere: «bestek egin lanaz baliatzea»? Bigarren errannahi horrek atsotitzaren errannahi analitikoa desbideratzen duela pentsatzen ahal da. Bainan ororen buru errannahi-aldaketa mota ezaguna da hala nola frantsesezko: «tirer les marrons du feu» esaeran. Ez du gaur «lan zaila egitea» erran nahi baizik eta «bestek egin lanaz baliatzea». Egiten dugun esaera baten ulerpena ez dator beraz soilki gure ezaguera linguistikatik, baizik eta daukagun kulturatik honek

zer ulertu behar dugun erraiten baitigu, motibazioaren kontra joanez ere. Horrelako aldaketa semantikoak ezagunak izanik lexiaren mailan, ez da harritze-koa gauza beraren gertatzea atsotitz-mailan, atsotitzak banako trinko bat osatzen duen ber.

Orain arte aipatutakoak orokorrak izanik, ordu da ikus dezagun gauza bera gertatzen denetz Oihenarten atsotitzak eta egun Oztibarren entzuten diren atsotitzak elgarri konparatuz. Lehenik formaz eta iduriz errannahiz guti aldatu direnak aipatuko ditugu; gero forma berdintsua beiraturik ere, errannahia aldatu duketenak, baita ere errannahi bera adierazten dutenak beste formula batez. Azkenik, egungo fraseologian maiztasun handiko formak sailkatu nahi nituzke, mota berekoak Oihenarten liburuan ez baitira hanitz, behar bada nahitara.

Aldaketa guti erakusten duten atsotitzetarik hasiko gara. Hizkuntzari denborak eragin higadurak nahitaez bere ondorioa dauka atsotitzean. Lexikoan gertatzen da garbikienik. *Esteiari* hitza adibidez hirutan agertzen da Oihenarten atsohitzetan. Gaur hitz hori guti zabaldua: behin bakarrik entzun dut Domintxine herrian, Maule eta Donapaulen artean, nonbaitetik ere; irakur daiteke bestalde A. Aguergarayk Oihenartez egin pastoralean. Zaila da beraz hitz horren agertzea gaurko fraseologian. Bainan esaera errotik desagertu gabe, hanitzetan atsohitzairen egiturak eta erranahiak bizirik iraun dezakete, egokitze zombait gorabehera. Horra adibidez: Oih 102 *Bi iaberen horac, sarea gora. Bi eta gora* ez ezik beste hiru hitzak aldatu dira bainan erranahi bertsuko atsotitza da gaur Oztibarren jasotzen dudana: *Bi nausiren zakhurrak maiñhaterak gora*. Kasu bera gertatzen da ondoko atsotitzarekin, zeinetan aditz-morfologian gertatu bilakaeraren berri ikusten baita:

Oih 88 *Bentura dadinak harza, estadinac es eta ere barza*. Gaur aditz morfologia aldaturik baina segur aski errimari esker atsohitza bizirik dago Xuberoan; *intseiatü dienac harza, intseiatü ez denak ez eta ere phartza*. Oihenarten lehenbiziko 100 atsotitzetan ondoko hauek bederen bizi bizirik dira: 10, 12, 29, 32, 43, 64, 66, 78, 96.

Beste atal batean, errannahiaren aldetik gertatu aldaketak aipatuko ditut. Oih. 342: *Odolac su gabe diraqüi*. Gaur Oztibarren: *Odolak eakitzen*. Formaren aldetik, aditz trinkorik ez dago; eta *su gabe* elementu galdu da. Baina errannahia ere aldatu da. Horra Oihenartek zer dioen: «Le sang boillit sans feu, c'est lors qu'on a du ressentiment de l'injure faite a quelqu'vn de son sang ou parente». Gaur berriz, askazirik ez da aipu: «zeit bauzu gustuko eztuzuna, hola ikhustian odola erakitzen dik» dio lekuko batek. Oihenartek «odol» hitzari emaiten zion konotazioa galdu bide da.

Oih. 383: *Otsoa esta otso araguüti alha...* Gaur: *eztik ez otsoak bere haragitik sekhula jan*. Baina kasu gaurko errannahiari Oztibartarren arabera; nehor ez dela bere buruari harrika ari adiarazi nahi dute eta norbaitek bere buruaren laudatzen ari delarik erabiltzen dute partikulazki.

Oih. 342: *Ogui bezambat gasna nahi luque*. Gaur entzuten dena, *Horrek badik ogi beno gasna*, baina espantuka ari den norbaitez erraiten da. Aldiz konkretuzki xokoleta edo gasna zuhur delarik ogiarekin jateko horra haurreri zer dioten aitamek: *ogiaren gainean behatza*.

Beste aldaketa-mota azalduko dut ondoko lerroetan hizkuntza guzietan ezaguna baita; atsotitzaren zati batek baizik ez irautea bizirik, beste elementuak galtzen direlarik, zeharo edo elipsepean kukuturik.

Horra Oih. 259:

*Iaunetan sein da lazena?
esdeuseti iaunzera heldu dena.*

Gaur atsotitza ez da bere osoan baliatzen. Oztibarren halako jende baten deitzeko *ttipitik handitia* erraiten da baina gehiagotan ere beste metafora hau: *zorri phiztua*, miserian bizi izan ondoan aberastu den eta besterentzat latz bilakatu den jendeaz errana. Azkenik metafora laburrak atsotitz oso eta dorpeak bezenbat informazio emaiten du lekukoek daukaten kulturari esker ezagutzen duten esaeraren testinguru osoaren arabera. Ezaguna da nola bertso edo lexia bakar batetarik alegia bat osorik gogorat etortzen zaigun.

Azkenik, aipatu behar den beste aldaketa mota da nozio beraren adierazia izaita atsotitz diferenteen bitartez honelako adibideek erakusten duten bezala; Oihenartek diolarik 20. atsotitzean: *Amac irin balu, opil balaidi*, gaur Oztibarren nozio bera ulertzen da ondoko esaeraz: *xaz urdia hil bagindu aurten xingarra janen ginduen*.

Oih. 240: *Hiri sionat Alaba, adi esan Alabaisuna*. Errannahi bertsoa dauka Oxkaxe inguruan Urdiñarbe eta Müsküldin entzuten den esaerak: *Be xuria, aitzina gorria* edo *Be xuria, konpreni gorria*.

Oih 55: *Hil adi, alaba aite*. Gaur Oztibarren entzun daitekeen atsotitza samina da, metaforaren bidez agerturik ere: *Hil ondoan, asto guziak zaldi eder izanak*.

Oih 96: *Berzeren buruco sorria dacussa, eta ez bere lepoco xerria*. Kurioski jadanik Aintzinatean baliatzen zen irudia bizirik dago gaur ere Oztibarren: *horrek alfortxak untsa tik*. Egiten dudan oharra haxe da bakarrik: ez da beraz Oihenarten bitartez gaurko lekukoengana etorri iduriz iturri kultoa daukan esaera hau. Nundik ote dator, etengabeko herri-transmiziotik edo jakitate kultoaren xartutik, hala nola besteak beste La Fontaineren alegia ezagunetik? Zehazki erantzuteko daturik ez daukat; gaur metafora hori ez dago kultoen munduan zerratua baizik eta herri-literaturan ere hedatua.

Besten buztanaz uliak ohilt, esaera ezaguna da Oztibarren. Anbiguitaterik gabeko errannahiak gogora ekartzen du gorago aipatutako Oihenarten 686. atsotitza: *Berceren eskus sugue berrotic athera nahi du*.

Oih. 264: *Iaureguico emaizac eskea ondoan*. Gaur Oztibarren entzuten den forman aktante zen *Jauregia* desagertu da bainan beste nornahik zerbait

eskaintzen duelarik, ondotik beste zerbait handiagokoren kausitzekotan araz, horra zer dioten Oztibartarrek: *zahia irinain eske*, Oihenarten esaera bezain ez gardena eta hargatik hura baino atsotitzago daitekeen formularen.

Ondoko lerroetan, Oihenartek emaiten ez dituen edo gutitan baizik emaiten ez dituen atsotitz mota zonbaiten aipatzera noa, hipotesiak aintzinatuz nahiz ez ditudan frogatzen. Lehenik, laborarien munduan konstatazio enpirikoak adierazten dituzten esaerak ez dira tole 1657ko liburuan. Gaur entzun daiteke Oztibarren beste leku frangotan bezala sineste zahar zonbaiten arana:

«Intzaur pian ezta lo egin behar.

Pikotik erortzen dena ezta sendotzen» etabar...

Meteorologiari buruz bereziki edo urtearen zikloari buruz, denborari eta aroari buruz, Oihenartek uzta handiegirik ez digu ekartzen. Alta ez bide ziren gutitan entzuten bere garaian, gaur ere noiznahi emaiten baitira ondoko bezalako esaerak:

«Urriko eguna argiko iluna.

Aphezpikua khanpoan deno, denbora gaitza.

Negia eztuzu sekhuka gainian gelditu.

Eztuzu ibiakoztik eguzki gabekoik nexkato ezkondunahi gabetarik beno.

Martxuan lanhoa norano, aphilian elhurra haano.»

«Lastometak altxatuz gioz, atsaskaria utzi behar edo aldaki hau: Andredena Mariaz, gabineteko giltza etxekanderiak altxatzen du edo: Ogiak joz gioz, etxekanderiak giltza zerurat igortzen edo: Atsaskariko zarea` Andredena Mariak eremaiten eta Martxoko Ama Birjinak ekartzen», beren artean arrazoinamendusare bat erakusten duten atsotitzak..

Hipotesi baten aurkeztekotan, erran nezake arlo hontako jakitate-banakoak ez zituzkeela hain gogogoak erudito zen Oihenartek: nago gai horretaz «herri-jakintzak» emandako atsotitzak ez ote zituen Oihenartek sineskeria gutiesgarritzat uzten.

Etnografian «blason» atalean sartzen ohi diren formulak Oihenartek ez ditu ihaurri ekartzen. Aldiz ahozko tradizioan ez dira eskas ditxo gisa ere agertzen zaizkigunak, etnia, herri, ofizio edo izen batez trufatzen direnak:

Biarnes, tripa ba; tripakorik ez.

Manxetik ez aize hunik ez jente hunik Zuberoan entzuten dena eta oihartzuna: *Xibeotarrek ez tie boneten beharrik.*

Eiberazañez khanbia, ohoñez khanbia.

Ber gisan esaera gordinek, ez plantakoek, behar ez bezalakoek, bereziki gorputzaren funzio apaletaz ari direnek leku handirik ez dute izan. Egia da bakan batzuk emaiten dituela Oihenartek esperientzi-egia biribila adierazi nahiz,

hala nola 474.: *Usqui maite higunt elai*te. Baina oro har gaurko populuak hanitzez gehiago baderabiltza hauk bezalakoak:

Bertz handirat kakin: «lan batean huts egin».

Bakhotxa bere bortatik mintza ditake: norbait uzkerria egin ondoan.

Aphobelatzak jokhatia izan: mozkorrondo txarra duenez erraiten.

Forma irringarriak ere ez dira anitz eta partikulazki Vellerkeriak deitzen direnak, erran nahi baita ezagunak diren atsotitzak desbideratuak direla geroztik asmatutako elementu irringarri batez. Adibidez horra zer dioen Oihenartek, 399.:

Pica nolaco, vmea halaco. Gaur entzuten den formulak erantsi bat badauka: *pikaren umia, pika; astoarena batzutan mandoa*. Nahiz Oihenart ez den sartzen zuzenki frantses klasisismoaren munduan, ez da dudarik horrelako doinu-haustek aihar zituela. Ber arrazoinaren gatik ene ustez, herri-literaturan hain erabiliak diren makaronismoak ez ditu emaiten; aldiz gaur entzuten da oraino:

«Petit gizon grand pantalon
Merci beaucoup lakha bat mukhu
Adios pereka zak ipurdia olioz»

Ez doinuak ez mintzairak ez dituzke nahasirik eman nahi. Ber maneran haurrei egin solasak liburutik kanpo egon dira. Horra zer entzuten dudana Oztibarreko Larzabalen:

«Aphularra kaxko beltza
nun hintzan
ene ama zena hil zelarik?
Lurrian barna
zazpi trantxa barna
barka othoi barka.»

Pieza hau gehitu behar zaio etnografoek bildu uztari baina ez ahantz Oihenarten garaian atsotitzak goi-mailako jendeen altxorrean sartzen direla: haurren mundua arrotz zaio.

Ikusten dudana azken hutsunea «enuntziatiboak» deitzen ditudan esieren kopuru ttipian datza. Hizlarien artean hainbat gertakariren aurrean erraiten ohi diren askotan gardentasunik gabeko formulaz ari naiz, Oztibarreko ondoko adibideek erakusten duten bezala:

Argia tanpez joaiten delarik, erraiten ohi da: *Ederrenak argi beza*.

Norbait istripu batetarik onik atera delarik: *Jinkuak argi in du*.

Norbait hil zela uste izan ondoan, eta azkenean bizi dela jakiten delarik: *hamar urthez bizia luzatu*.

Behar zen mementoan solasaldi baten haria ez segiturik, solasaldi horren berri berantegi jakin mina erakusten zaion jendeari horra zer erantzuten zaion: *Orenak joitian kontatzen tuk*.

Horrelakoak guti balinbadira Oihenarten bilduman, uste dut arrazoina bila daitekeela hizkuntza/hizkera bikotearen arabera. Garrantzi handia emaiten dio Oihenartek hizkuntzari, ez hainbeste hizkerari.

Ordu da buka dezadan. Lan gehiago merezi du Oihenartek duela hiru mende idatziz eman atsotitzak oraiko ahozko paremiologiarekin erkatzeak. Besteak beste, ikertu behar litezke sakonkiago elgarren kontra joaiten diren atsotitz-barneko elementuak, hala nola tasun iraukorrak eta atal aldakorrak, antzinatasuna eta gaurkotasunean errotzeko hil ala biziko egokitze beharra, luzaeraren aldetik forma hanpatuak eta forma laburtuak.